

opusdei.org

“Lana, egintza dugu. Jainkoa gurtzeko eta gizateria zerbitzatu egitekoa”

Opus Dei-ko Prelatua Bilbon egon zen joan ziren ostiral eta larunbatean. Kongresu batean parte hartu zuen eta Opus Dei-ko kide, laguntzaile eta adiskideekin elkartu zen

2009 Mar 30

Ostiralean, hilak 20, Opus Dei-ko Prelatua Bilbora iritsi zen.
Elizbarrutiko Gotzaina On Ricardo

Blazquez bisitatu ondoren, otoitz
egin zuen une batez Begoñako
Birjinaren aurrean.

Larunbatean parte hartu zuen
Euskal Herriko “Katolikoak eta Herri-
Bizitza” Jardunaldietan, Euskalduna
Jauregian. Garatu zuen ponentzian
kristau konpromisoa defendatu egin
zuen, gaur eguneko gizakiaren
“arazo larriak” konpontzeko.

Javier Echevarria monsignoreak
baieztatu zuen, lana, Jainko
agurtzeko eta gizateria zerbitzatzeko
egintza dela. Esan zuen bezala, lana
ez da norberaren burua garatzeko
bide bat bakarrik, ezpada "funtsezko
elementua" gizartearen
aurrerakuntzan. Haren hitzetan,
kristauak, lan zuzen erantzulea
eginaz, "mundua santutu" egin
dezake eta "Kristoren jarraitzaile"
bihurtu daiteke.

*Prelatua, zenbait familiarekin egon
zen*

Bere azalpenean, Opus Dei-ko Prelatuak azpimarratu egin zuen lan ondo eginaren eta Jesukristoren irudiaren arteko lotura zuzena.

“Lanak, kristaua, hainbat egoeren aurrean kokatzen du, zeintzuek gonbitea egiten diotela hari Kristo begiratzera, Kristori bihotza berritzera, Haren hitz eta jarraibideagatik barneratzeko uztera”.

Hori dela-eta, gogorarazi egin zituen San Josemaría Escrivá, Opus Dei-ren Fundatzailearen hitz batzuk:

“Gizarte bat, atsekabe edo zuzengabekeriei erantzunik eman ez, eta horiek arintzeko saiatzen ez baldin bada, ez dago Kristoren Bihotzaren neurrira eratua”. Baita, Benedikto XVI. Aita Santua ere aipatu zuen, nork, urtearen hasieran, kristau-konpromisoa aipatu zuela gaur eguneko gizakiak dituen “arazo larriak” konpontzeko.

*Prelatuak zenbait tertulia burutu
zituen asteburuan zehar*

Bilbon egon zen egun bitan,
Prelatuak, Opus Dei-ko kideekin
zenbait tertuliatan parte hartu zuen.
Bere hitzekin aldarrikatu egin zuen
gizartearen arazoen pisua zamaratu
egitera, otoitz sakoneko bizitza
eginaz horretarako, Benedikto XVI.
Aita Santuarekin leialtasun eta
batasun osoan.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/lana-egintza-dugu-jainkoa-
gurtzeko-eta-gizateria-zerbitzatu-
egitekoa/](https://opusdei.org/eu-es/article/lana-egintza-dugu-jainkoa-gurtzeko-eta-gizateria-zerbitzatu-egitekoa/) (2026 Ots 21)